

ISILTASUN GARAIA

Prisioneroak etxera itzuli zirenean, haiek egindako obretan ez zen beren lanaren eta saminaren inongo aztarnarik gelditu. Hain handia zen isiltasuna, ezen batzuek esperientzia familiari kontaktzen zioten bitartean, beste batzuek ezer ez kontatzea erabaki zuten. Oraindik susmagarriak ziren, lana lortzeko zailtasunak zituzten, arazo gehiago sor zitekeen oraindik ere.

Isiltasuna trantsizioan zehar ere mantendu zen. Kontzentrazio eremuek mutu jarraitu zuten, han gertaturikoa azaltzen zuen inongo museorik edo kartelik gabe. Lan horietaz baliatu ziren enpresek ez dute beren irabaziez batere azalpenik eman behar izan, eta orain dela gutxi arte zenbait administrazioek ez dute BDSTetan emandako denbora aintzat hartu giltzaperatuentzako kalte-ordainak ematerakoan.

Gaur egun, memoria historikoaren legea deitu denak ere ez du aldaketa handirik proposatzen, eta Valle de los Caídos izenekoak diktadorearen omenaldirako tokia izaten jarraituko du, toki hori errepresioaren museo bihurtzeko egin diren proposamenak baztertzuz.

Testigantzak



Pablo García

(José García Fayaren bioba, Mieres, Asturias)

Amorrua sentitzen dut. Errokariko esklaboen omenez dagoen monolitoari egindako eraso nazi-faxistengatik,

are gehiago nire aitonaren egoera ikusita. Horregatik, heriotzaren kontrako borroka bikoitza izaten ari dela uste dut. Bata garaiezina dena, lehenago ala berandua-g deno! Heltzen zaiguna; bestea, bere kartzelero ohiek ezarri nahi ditena, bere memoriaren heriotza.



Félix Padín

(BDST 38, Bilbo, Bizkaia)

Dirudienez, trantsizioa hori izan zen, ahaztea, es-taltzea, gurea, ez haiena!



Emakume zain gizon fusilatuen gorputzak denbora luze epean dira bide baterretan eta sakanetan. Fustilinan (Nafarroa) egindako eszumaioa, 2002. Egilea: Joseba Zabala - Viscuuta



Mercedes Canok 2006ko udaberrian jakin ahal izan du bere aita Antonio, Frailesekoa (Jaén), Iruñeko Ospitale Militar Diziplinarioan hil egin zela, 1941ko apirilaren 8an. Hara eramán zuten Igaritik, 6. BDSTan zituen lan eta bizitza baldintza latzek gaixoturik. Mercedesek inoiz ez zuen aita ezagutu, baina bizitza osoan zehar bere heriotzaz ezer ez jakitearen min sakona eramán du bihotzean.

Egilea: Eusebio - Viscuuta



Errokariko Batzordeak Memoriaren Bideak taldeari bidalitako eskutitza



Presoen Urdulena, Beha Guadaquivir Egilea: Leticia Vasco

ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

3. Alanbradaz haratago

